

## Literatura →

## Esentziaren bila, biluzik

Alex Gurrutxaga

**G**abriel Kortaren ibilbide poetikoa 1980an abiatu zen, *Isiletik* liburuarekin. Lan hura Ustelarekin ateratu zuen, Susarekin bigarrena, eta ordutik honako liburuak—beste lau—idazleak berak editatu ditu. Azken honek *Diot* du izena eta, ohi bezala, azaleko eta barneko ilustrazioak Kortak berak eginak dira.

Soila da, ezer izatekotan, Gabriel Kortaren poesia. Formalki neurri txikiko poemak dira, lerro gutxiak, metrika librea dute, eta errimariak gabeak dira. Poetak honela azaltzen du bere poetika *Hitzak eta poesia* poeman: «apaingarri poetikoak/ amaitu zaizkit/ eta orain/ apaingarri berriak/ sortu behar ditut». Soiltasuna nabaria da Kortaren aurreko lanetan ere, baina azken lanean poetak mugara eramanean du artifizio oro erazteko nahia—erabat sinbolista den azken poeman salbu—. Horren erakusgarri da aurreko liburutik—*Ehura galtza motzetan*—honetara puntuazioan dagoen aldea. Ez da txikikeria: han puntuazioa ugaria zen—zeharo desegokia—, eta irakurtze-

rakoan poemen prosodia erabat oztokatzen zuen. Aldiz, *Diot*-en ez dago ia batere puntuaziorik, eta poemen erritmoa ongi antzematen da.

Edukiari dagokionez, pentsamendua da poesia honen euskarrria, eta oro har gai existenzial eta filosofikoak lantzen ditu. Poemak nitasunetik abiatzen dira: subjektu poetikoak gogoeta egiten du, maila abstraktuan gehiengotan, eta gogoeta hori poetikoki gauzatzen denean, dimentsio orokorra bilatzen du. Gai nagusien artean lehenago ere landu dituen bi nabarmendu genitzake: erotasuna eta poesia. Esan daiteke erotasunaren lanketan poesia konfesionalek ere baduela zerbait Kortaren obrak. Izan ere, zuzenean mintzo da poeta gai horren inguruan, esperientzia propiotik abiatuz, eta ederrak bezain latzak dira, besteren artean, *Diot* edo *Epaitu minduten* poemak.

Aipagarria den beste gai bat poesia bera da, eta Kortaren aurreko poema liburuetan bezala, *Diot*-en ere poema askok erantzuten dio poesia zer den jakiteko nahia. Alde horretatik ikuspegi esentzialista sumatzen da. Batetik, poetak Egia erlazioan zuten du poe-

siarekin—ideia poetiko erromantikoa da—: «Neuretu ditut hitzak/ ez dut gezurrik esaten/ dena poesia bihurtzen da/ poetaren begietan», edo «Poetaren iragana/ jendeak ahoan darama/ (bakardadea mendeku)/ egia esateagatik». Bestetik, poesia bihotzetik—eta beharretik—sortzen zaiola esaten digu: «bularrak ordeak/ eta bularrak barruan bizi den bihotzak/ poesiara narama», edo «zeri eutsi diot/ nire baitan daramatzadan/ poesia haziak/ loratzen ez baditut?». Era berean, poesia poetaren nortasuna libratzen den ere-

**'DIOT'**

- **Egilea:** Gabriel Korta.
- **Argitaratzailea:** Gabriel Korta (egile editore).

mu gisa agertzen zaigu, bere askatasunaren espazio purutzat; honakoa irakur genezake *Hitzaurrea*-n: «17 urte nituenean poesia izan zen, nire nortasunaren eta nire askatasunaren espazio propioa. Ez al da ba horrela?».

Ikuspegi esentzialista agertzen da, hortaz, liburuan. Alabaina, batzuetan, poemek gauzen esentzia—halakorik balego!—ukitzen ez dutenean, arnasa laburrekoak dira. Esaterako, *Kaleko musikaria* edo *Lao Zi gogoan* poemek ez dute lortzen irudi bat edo ideia bat iradokitzea baino gehiago. Liburua osotasunean harturik ere ezin esan daiteke arnasa poetikoa bereziki indartsua denik. Halere, badira txikitik abiatu eta urrunera iristen diren poema zenbait: *Zuek bezalakoa ni* edo *Neguaeren atarian*, adibidez. Gainera, beharbada bai, beharbada iristen da Kortaren ahotsa uneren batean Egia. Izan ere, poesia biluzia da berea, artifiziorik ez dagoelako, baina baita poetaren ahotsa tranparik gabe—biluzik hori ere—iristen zaiolako irakurleari. Beharbada badago soiltasun horretan zerbait esentziala: «Nire bihotza/ oinarritzko poema bat da».

**'SUA ITZALI, HIRIA PIZTU'**

- **Egilea:** Iñaki Martiarena 'Mattin'.
- **Argitaratzailea:** Donostia Sutan 1813-2013 elkarte.

Komiki lan honetan, Iñaki Martiarena *Mattin*-ek Donostian 1813an gertatu zen suntsiketa lagarriaren zantzuak ematen dizkio irakurleari, eta gaiari buruz gehiago jakitera bultzatzen du. Horretarako, istorio entretengarri eta koloretsu bat asmatu du.

**'669. LOGELA ETA BESTE KONTAKIZUN BATZUK'**

- **Egilea:** Esther Extremera.
- **Argitaletxea:** Beta.

Hamar istorio biltzen ditu liburua, gehienak amodiozkoak. «Batzuk beste garai batekoak dira, beste batzuk gaur egungoak, lagunaren arteko erlazioak, abenturak, mota askotakoak...», argitaletxeak jakinarazi duenez. «Logela bero-beroa, erotismoz betea», erakusten du liburuko aurreko ipuinak.

**'ZERGATIK DEN EGIA EBOLUZIOA'**

- **Egilea:** Jerry A. Coyne.
- **Itzultzailea:** Itziar Otegi.
- **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Unibertsitatea.

Jerry A. Coyne zer den eboluzioa laburbildu du EHUk Zio bilduman kaleratutako liburu honetan; eta zer baieztatzen duen zehazki hari buruzko teoriak. Darwinen hitzak tartekatzen ditu, eta ezin konta ahala froga dakar liburuak, teoriaren alde.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Txano Gorritxo berri bat

**J**oan den 2013ko azken arrastoan *Zapatagorri* iritsi zaitzugu, Txano Gorritxoren bertso berri bat. Tapa gogorrek edizio zainduan eta tamaina handian, Jokin Mitxelenaren grafismo iradokitzaileak eta Pello Añorgaren prosa jostalariak kontakizun indartsua ehundu dute haurtzaroan bizitzen den arrisku latzenetakoa agerian jartzeko. Mezua egungo arriskueta gaurkotuta dator, ipuinei dagokien eran, era sinbolikoan.

Zapatagorrien istorioa zehaztu gabeko garai eta lekuetan abiatzen da, tradizioari ipuinean bezala, nahiz eta abentura ez den amonaren etxerako bidean

**'ZAPATAGORRI'**

- **Idazlea:** Pello Añorga.
- **Ilustrazioak:** Jokin Mitxelen.
- **Argitaletxea:** Denonarte.

gertatzen, baizik eta eskolatik bueltan, perretxikoak biltzen hasi eta basoan galtzen denean. Zaila da gehiago kontatzea istorioaren sorpresa zapuztu gabe, baina aurreratuta liteke otsoak neskatoa bahituko duela eta kostako zaiola onik iritien.

Testua umorez ukitura dator, baina halako ipuinei dagokien tentsioari eusten zaio amaiera arte. Ilustrazioekin ere berdintzatzen da. Kolore grisak zuriaren gainean etzaten dira orrialde guztietan oinarritzko abiapuntu gisara eta hori-gorrien aldakiak gorputzu egiten dituzte fiabartu beharrekoak, naturaren berdearekin batera eta urdin tanta batzuen laguntzaz. Otsoa erraldoia da txano Gorritxoren parean, hortz ilara amaigabeko ahoarekin, iletsua eta atzaparrek.

Ipuinak ozen irakurtzeko ezin aproposagoa dirudi; hori bai, heldu batek bospasei urtetik aurrerako entzuleei. Ez zigortu haurrak irakurketa behartuan, otoi. ■ **IMANOL MERCERO**

## Skaterrak

**S**katerrak deitzen den trilogiaren lehen alea da *Ertze-aneleberria*. Skatelarien eta paisaia urbanoaren ilustrazioek giroa, nerabeez hitz egiten zaigu eta, aldi berean, misteriozko ikerketak argitzen dira.

Kontaketa hiru ardatzetan mugitzen da, dena lotzen duten hari gisara Adrian protagonista eta Imanol anaia (antagonista?) dabiltzalarik.

Hiru ardatzetan agertzen lehena etxea da, Eva amak ordezkatzan duen babesleku eta konflikto sorleku oinarritzkoena. Etxeko gertakariak nerabeez bizi duten komunikazio-ezintasuna

**'ERTZEAN'**

- **Idazlea eta ilustratzailea:** Mikel Valverde.
- **Itzultzailea:** Julen Gabiria.
- **Argitaletxea:** Giltza.

na agerian jartzen dute eta kontaketari abiapuntu psikologikoa ematen diote. Konfliktoen sortzaile Imanol da, ama dinamizatzaile malabarista eta Adrian iheska, bere burua babesten.

Bigarren ardatza skate-mundua da, Imanolen ingurune naturala. Adrianentzat eremu deseroso bezain erakargarria da, giza harremanetarako abila izan ez eta bertakoek abegiz hartzen duten unetik. Eleberriko beste bi ardatzen arteko abaro-leku gisara funtzionatzen du. Haren inguruan elkartzan dira ikertzaile taldea osatzen duten pertsonaia nagusiak.

Hirugarren ardatza eleberriko misterioa da. Zoriak argitu beharreko baten aurrean jartzen du lagun taldea eta—hau bai ezustea—Adrian lotsatia izango da bertako liderra.

Konflikto psikologikoetatik abiatu eta misteriozkora lerrokatze horrek hankamotz uzten ditu pertsonaien garapen eta gatazkak, baina uler liteke hurrengo aleetan berreskuratu egingo direla. ■ **IMANOL MERCERO**